

Home-Start
Gipuzkoa
familiak eskuz esku

Boluntarioentzako
txosten informatiboa

bak**etik**



Home-Start
FAMILIAK ESUZ ESUZ
Gipuzkoa

Aurkibidea

·Zer da Home-Start Gipuzkoa: familiak eskuz esku?	2
·Home-Start programako boluntarioek zertan egiten diete on familiei?	3
·Home-Start Gipuzkoa: familiak eskuz esku programaren ikuspegia eta helburuak	5
·Home-Start Gipuzkoa: familiak eskuz esku programako boluntarioen rola	6
·Azken hitza	8

Zer da Home-Start Gipuzkoa: familiak eskuz esku

Haur baten bizitzako lehen urteak eta haurrak etapa horretan gurasoekin (edo zaintzaile nagusiekin) dituen harremanak erabakigarriak izaten dira haurtzaroa segurua izateko. Noizean behin, ordea, zenbait gorabehera direla medio, zailtasunak sortu daitezke hazkuntzan.

Hauxe da Home-Start Gipuzkoa: familiak eskuz esku programaren helburua: hazkuntza-zailtasunen bat duten gurasoen egoera arintzea, boluntarioen laguntza informal eta ez-profesionalaren bidez, seme-alabak hobeto zaintzeko, hezteko eta haiekiko harremanak estutzeko gai izan daitezen, horrek haurren ongizateari eta familia osoarenari mesede egin diezaiokeelakoan. Baketiken adierarik zabalenean ulertzen dugu *familia* terminoa, eta, alde horretatik, adin txikiko seme-alabak dituzten familia mota guztiak hartu ditugu aintzat proiektu honetan, gure gizartean familia-eredu asko eta askotarikoak daudela kontuan hartuta eta familia gurasobakar amadunei leku berezia emanda.

Home-Start Gipuzkoa doako eta isilpeko laguntza-zerbitzua eskaintzen du haur txikien hazkuntzan eskarmentua duten boluntarioen bitartez; eskarmentua izateak, hain zuzen, familiek etapa horretan izan ohi dituzten zailtasunak errazago ulertzeko eta haienganako enpatia sentitzeko modua ematen die boluntarioei.

Aldi berean, programak lantalde profesional bat ere badu, boluntarioei etengabeko laguntza eta aholkularitza eskaintzen dizkiena. Norbaitek gure programaren berri jakiteko interesa badu, Baketikeko lankide bat joaten zaio prozesuaren nondik norako guztiak esplikatzerara eta zalantzak argitzera. Gainera, programak prestakuntza eta aholkularitza eskaintzen dizkie boluntarioei familiekin lehen aldiz elkartu baino lehen.

Nolanahi ere, programako protagonistak familiei laguntzen dieten boluntarioak eta familiak berak dira.

Home-Start programa Erresuma Batuan sortu zen 1973an, eta harrezkero 5 kontinenteetako 22 herrialdetara hedatu da, seme-alabak dituzten familiei bizitzako lehen etapa horretan laguntzea helburu hartuta. Home-Start programak 30.500 boluntario baino gehiago ditu gaur egun, 59.000 familiari baino gehiagori eta 76.000tik gora haurri laguntzen dietenak.

Home-Start Gipuzkoa, mundu osoan lanean diharduten gainerako elkarte eta erakunde kideak bezala, Home-Start Worldwide sarearen parte da. Elkarte eta erakunde horiek guztiak esparru politiko eta praktiko beraren agindupean daude.

Home-Start Worldwide arduratzen da Home-Start programaren nazioarteko sarea koordinatzeaz, mundu mailako estandar eta jardunbideak betetzen direla zaintzeaz eta Home-Start ereduaren garapena sustatzeaz.

Home-Start programako boluntarioek zertan egiten diete on familiei?

Home-Start programa aspalditik ezarria duten munduko bazter guztietan, urtero hitz egiten dute familiekin, boluntarioekin eta profesionalekin beren laguntza-programaren emaitzez. Ebaluazio horiei esker, badakigu Home-Start programak gurasoei ematen dien laguntzak eragin positiboa duela familien eta haurren bizitzan.

Hona hemen programak zer alderditan lagundu dezakeen:

- Gurasoak bizitzako lehen fase horretako pozez jabearazten eta haien hazkuntza-gaitasunak hobetzen.
- Familien bakartze-egoera txikiagotzen eta gizarte-laguntzako sareak ugaritzen.
- Gurasoen eta seme-alaben arteko harremanak sendotzen.
- Gurasoen osasun fisikoa eta ongizate emozionala hobetzen.
- Etxeko giroa gozaten.
- Seme-alaben osasuna, ongizatea eta garapena hobetzen.
- Bizitza komunitarioan parte hartzeko eta familiarentzat baliagarri gerta litezkeen gizarte-zerbitzuetara jotzeko modua hobetzen.

Azterlan eta ikerlan ugari daude onura horiek berretsi dituztenak. Horrek balio berezia ematen dio Home-Start programari, familia zaugarriekin lan egitearen fruituei buruzko ebidentzia enpirikoak ematen baitizkigu.

Urteen joanean hainbat herrialdetan egindako ikerlanen ondorioz, Europako Batzordeak ebidentzian oinarritutako programa gisa sailkatu du Home-Start programa. Horregatik hautatu du programa hori Baketik, Gipuzkoako Foru Aldundiarekin elkarlanean gure lurraldean Home-Start Gipuzkoa: familiak eskuz esku deritzona inplementatzeko.

Zehazki, hauxe da ikerlanek frogatu dutena:

- Home-Start programa baliabide eraginkorra dela bazterketa soziala pairatzen duten familientzat edo komunitatean integratzeko zailtasunak dituztenentzat.
- Esku-hartzeei errezeloa dieten edo bestelako laguntza-zerbitzuak jaso ezin ditzaketen gurasoek begi onez ikusten dutela programaren ikuspegi informala.

- Boluntarioek zubi-lana egiten dutela familien eta komunitatearen artean, eskaintzen zaizkien eta bestela ezagutu edo erabiliko ez lituzketen baliabide, zerbitzu eta prestazioak eskuratu ahal izateko.
- Home-Start programak sozialki baztertuta dauden familiekin lan egiten duela, eta ahalduz, trebatzen eta jarduera komunitarioetan parte hartzen laguntzen diela.

Home-Start Gipuzkoa: familiak eskuz esku programaren ikuspegia eta helburuak

Ikuspegia

Egoera zaugarria eta hazkuntza-zailtasunak dituzten familiek beren seme-alaben bizitzako lehen urteak osasungarriak eta seguruak izateko behar duten laguntza jasotzea da Home-Start Gipuzkoa: familiak eskuz esku programaren xedea.

Mundu zabaleko Home-Start programa guztiek (tokian tokiko eskemek) ikuspegi horrekin bat egiten dute, denek printzipio eta balio berberen arabera funtzionatzen dute, eta denak oinarritzen dira NBERen Haurren Eskubideei buruzko Hitzarmenean jasotzen diren haurren eskubideen errespetuan.

Pertsona eta familia bakoitzak bere indarguneak ditu, eta denak dira azpimarragarriak eta sustagarriak; horregatik, hain zuzen, harreman-prozesuotan protagonistak pertsonak eta familiak izatearen aldekoak gara gu. Programaz arduratzen den lantaldeak, bestalde,

parte-hartzaileen konfidentzialtasuna, aukera-berdintasuna eta babesa bermatuko ditu.

Helburuak

Hona hemen Home-Start Gipuzkoa programa aplikatuz zer lortu nahi dugun:

- Hezkuntza-rolei eta familia-antolaketari dagokienez, familiei babesa, harreman pertsonala eta laguntza praktikoa eskaintzea (autonomia lortu dezaten).
- Komunikazioan eta malgutasunean oinarritutako lagunartea sortzea, familia bakoitzaren premia zehatzak aintzat hartuta.
- Gurasoak sare komunitarioetan integratzera animatzea, eta horretarako babesa eta laguntza ematea, komunitatean zinez parte hartu dezaten eta beren inguruko baliabideak erabil ditzaten (gizarte-, hezkuntza-, osasun- eta kultura-baliabideak, aisialdia, etab.), gizarte-bazterketari aurre egiteko.

Home-Start Gipuzkoa: familiak eskuz esku programako boluntarioen rola

Home-Start Gipuzkoa programaren baitan sortutako harremanen ondorioz, boluntarioek babesa eta laguntza eskainiko dizkiete gurasoei, horrek familien egunerokoari mesede egin diezaion.

Harremanok, gutxi gorabehera, 6-9 hilabeteko iraupena izango dute; tarte horretan, Baketik, Home-Start Gipuzkoa programaren koordinatzailea den aldetik, laguntza, ikuskapen erregularrak eta prestakuntza eskainiko dizkie

boluntarioei familiekiko harremanetan, beren rola ahalik ongiena bete dezaten.

Hala, hasieran (nahitaez) egin beharreko prestakuntza-ikastaroan aipatzen diren jarraibideekin bat etorriz, hauxe da boluntarioengandik espero duguna:

- Proiektuaren espiritura ohitu eta harekin konprometitu daitezela.
- Programak konfidentziasunarekin, aukera-berdintasunekin eta haurren babesarekin lotuta bere gain hartuak dituen politikak uler eta inplementa ditzatela.
- Baketikek antolatutako laguntza-, ikuskapen- eta prestakuntza-saioetara joan daitezela.
- Programako erreferentziazko teknikariarekin estuki koordinatuta jokatu dezatela, eta bisiten erregistroa bete dezatela.

Horretarako, egoera zaurgarrian dauden edo zaurgarriak izateko arriskua duten familiei eta haien seme-alabei Home-Start Gipuzkoa programaren bidez laguntzen dieten boluntarioek baldintza hauek bete beharko dituzte:

- Guraso/zaintzaile modura eskarmentua izatea.
- Haurren garapenaren inguruko ezagutzak izatea, edo ikasteko gogoia izatea.
- Edozein pertsonarekin lan egitearen aldeko jarrera izatea, generoa, familia-egoera edo egoera soziala, sexu-orientazioa edo sexu-identitatea, arraza edo jatorri etnikoa, kultura edo erlijioa, eta desgaitasunen bat duen ala ez gorabehera.
- Sentiberatasunez eta enpatiaz jokatzeko, aurreiritzirik gabe eta lankidetzarako gogoz.

Boluntariotza jarduera kitzikagarri eta atsegina da, baina energia, konpromisoa, fidagarritasuna, sormena eta umorea behar dira boluntario jarduteko. Hori dela eta, programak eskaintzen dien laguntza pertsonalaz gainera, beren arteko laguntza-taldeetan eta programaren baitan sortu litezkeen bestelako jarduera, jardunaldi eta taldeetan parte hartzera ere bultzatuko ditu boluntarioak Home-Start Gipuzkoak.

Azken hitza

Home-Start programaren baitan laguntza emate horretan, Home-Start Gipuzkoako boluntarioek berebiziko garrantzia dute. Horregatik, lehen hurbilpen modura, dokumentu honetan programaren xehetasunei, helburuei eta konpromisoei buruzko informazioa jaso dugu. Interesa duten pertsona guztiak animatzen ditugu Baketikekin harremanetan jartzera, programaren berri sakonago jakiteko.

Hala ere, aholku, jarraibide eta gomendio guztiak gorabehera eta tartean daudenek beren esku dagoen guztia egin arren, aurrean dugun lana korapilatsua da, eta parte-hartzaile guztiak prest egon beharko dute aurrera egin ahala programak neurri batean edo erabat huts egiten duela ikusteko.

Vaclav Havel-en esanetan, «itxaropena ez da dena ondo aterako dela uste izatea, baizik eta seguru egotea, emaitza zeinahi dela ere, egiten dugunak zentzua duela». Alde horretatik, Baketik osatzen dugunon ustez, Home-Start Gipuzkoa: familiak eskuz esku programak erabateko zentzua du, sozialki zailtasunak dituzten familien egoera hobetzen ahalegintzeko eta familia horietan hazten ari diren haurrek garapenerako ahalik eta aukera gehien izateko baldintzak sortzen laguntzen digunez gero.

Informazio gehiago, hemen:

Baketik

943251005 / 688644354

infoHSG@baketik.org

k.soares@baketik.org



**Financiado por
la Unión Europea**
NextGenerationEU



**Plan de Recuperación,
Transformación y Resiliencia**

**Gipuzkoako
Foru Aldundia**
Zainketa eta
Gizarte Politiketako
Departamentua



**Diputación Foral
de Gipuzkoa**
Departamento de
Ciudadanos y Políticas
Sociales

**KUTXA
FUNDA
ZIOA**

